

AITOR JAUREGUI / BlackRock Iberia enpresako arduraduna

“2018. urtea ezohikoa izan da inbertsioaren munduarentzat; oso denboraldi zaila izan da, bai errenta aldakorrarentzat bai errenta finkoarentzat”

Aitor Jauregui BlackRock Iberia enpresako arduraduna da, eta Eskuordeturiko Zorroei buruzko jardunaldietan parte hartu du, hain zuzen ere Banku Pertsonaleko bezeroei zuzenduriko jardunaldietan. Bertan mintzagai izan ditu megajoerak, ekonomia globala, enpresa-mundua eta gizartea aldatzen duten indar boteretsuak eta eraldatzaileak baitira; era berean, aipatu du gure esku dagoela aldaketa horiek arrisku gisa edo aukera gisa ikustea gure inbertsioentzat.



Aurkeziezaguzu zure konpainia, eta kontatuzaguzu zein den zure kudeaketa-estiloaren oinarrian dagoen filosofia.

BlackRock enpresa liderra da munduan inbertsioen kudeaketan, arriskuen analisian eta aholkularitza-zerbitzuetan. Aholkularitza-zerbitzu horren bezeroak bezero minoristak eta instituzionalak dira, eta mundu osoko 30 herrialdetan baino gehiagotan daude. 2018ko abenduaren 31n, BlackRock enpresak 5,98 bilioi dolarreko balioa zuten aktiboak kudeatzen zituen.

BlackRock 1988an sortu zen Estatu Batuetan, eta Espainian 1994an ireki genuen bulegoa. Ordutik, Espainiako merkatuarekiko dugun konpromisoari eutsi diogu, eta areagotu ere egin dugu, eta inbertitzaileei eta aurreztaileei lagundu diegu beren finantza-helburuak lortzen. 2010ean, iShares-eko gure ETFak (funts kotizatuak) erregistratu genituen Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalan (CNMV), eta 2013an, berriz, aktibo kudeatuen arloan nazioarteko lehenengo enpresa kudeatzailea izan ginen (Inverco-ren, inbertsio kolektiboko erakundeen elkartearen, datuen arabera). 2018a amaitzean, BlackRock enpresak 30.000 milioi euro baino



gehiagoko aktiboen bolumena du banatuta Espainian, Inverco elkartearen datu ofizialen arabera.

Gure bezeroen ondarea kudeatzeko orduan dugun filosofia sinplea da: inbertitzaileei laguntza ematea beren finantza-helburuak lor ditzaten. Hori egiteko, badugu abantaila bat: tokian presentzia handia dugu eta estilo desberdinetako produktu ugari ditugu, bai kudeaketa aktibokoak bai kudeaketa indexatukoak. Gure bezeroekin ditugun elkarrizketak ez dira izaten produktu bati edo beste bati buruzkoak, baizik eta mintzagai izaten dugu zein den beraien inbertsio-jomuga, arrisku-profila eta finantza-helburuak, eta nola lan egin dezakegun elkarrekin batera horiek lortzeko.

Zer balantze egiten duzu 2018. urteari buruz?

2018. urtea ezohikoa izan da inbertsioaren munduarentzat: oso denboraldi zaila izan da, bai errenta aldakorrarentzat bai errenta finkoarentzat. Hain zuzen ere, bi aktibo-mota horiek erabili izan dituzte inbertitzaileek beren zorroen funtsezko zati gisa. Azken urte honetan merkatuei kaltea eragin dieten faktoreak hauek izan dira, batez ere: ziurgabetasun ekonomikoa, merkataritza-gorabeherak eta finantza-baldintza murriztailegoak interes-tasak igo direlako AEBn.

Beraz, inoiz baino garrantzitsuagoa izan da inbertsio-jomuga eta inbertsio-helburuak argi izatea, eta beren gain hartzeko prest zeuden arriskuak ere argi izatea. Era berean, inbertitzaileentzat funtsezkoa izan da zorro erresilienteagoak eraikitzea, muturretako estrategiari jarraituz. Zorroaren erdigunean jarri dira aktibo kontserbatzaileak, babes-aktiboak eta kalitate handikoak; horiek osatzeko beste aktibo batzuetan egin dira inbertsioak, eta horietan ordainsariak justifikatu du onarturiko arriskua.

2018ko laugarren hiruhilekoan, merkatuetan beherakada esanguratsuak izan ziren, berriro ere atzerakada ekonomikoa izango zen beldurrak eraginda. Gure iritziz, ordea, hori gertatzeko zegoen probabilitatea ez zen handia. 2018. urtearen amaieran saldu zuten inbertitzaile horiek galdu egin zituzten 2019. urte hasierako igoerak. Horregatik, orain eduki behar dugu argien, salmenta masiboen garai honetan, zein diren gure inbertsioen jomuga eta helburuak.

Eta 2019an, zer espero dezakegu? Zein dira zure iritziz ezegonkortasun-gune nagusiak?

BlackRock enpresan dugun ikuspegi nagusia zera da, bai errenta finkoak bai errenta aldakorrak itzulkin positiboak emango dituztela 2019an, oso handiak izango ez diren arren. Eta hori gertatuko da 2018a ezohikoa izan ondoren, bi aktibo-mota horietan beherakadak izan baitziren. Uste dugu geldialdian gaudela hazkunde ekonomiko globalaren eta enpresa-mozkinen arloan, baina, gure ustez, epe motz eta ertainera atzeraldia izateko probabilitatea txikia da.

Bestalde, AEBn ez dute jarraituko interes-tasak igotzen hiruhileko bakoitzean, orain arte ikusi dugun bezala, eta datu makroekonomiko nagusien garapenak gehiago baldintzatuko du moneta-politika.

Oraindik ere nahiago dugu errenta aldakorra, uste dugulako aktibo horrek sarituko dituela gehien inbertitzaileak beren gain harturiko arriskuaren ordainetan. Hala ere, bonu subiranoak ere funtsezkoak izango dira zorroak eraikitzekeo prozesuan, defentsa-estrategia gisa ezegonkortasun-uneetan.



Arrisku geopolitikoei dagokienez, hainbat gunek arreta berezia merezi dute. Epe motzera, Brexitaren inguruko negoziazioak egunkarietako izenburuetan ageri dira, eta ezegonkortasun-iturri izaten jarrai lezakete. AEB eta Txinaren arteko merkataritza-gorabeherak duela urtebete baino gehiago daude islatuta egungo balioztapenetan, eta, beraz, ustekabe-arriskua txikiagoa da. Horregatik, oraindik ere nahiago dugu errenta aldakorra errenta finkoa baino, aukeraketa geografikoa funtsezkoa den arren. Aktiborik gehienak merkatu egin dira, eta balioztapenak erakargarriagoak dira orain. Hala ere, ziurgabetasuna handiagoa da, eta hori kontuan izan beharreko arrisku-faktorea da.

Banku Pertsonaleko bezeroekin izaniko topaketara etorri zara, megajoerei buruz hitz egitera. Zergatik? Zer inbertsio-aukera ikusten dituzu?

Arrazoi nagusia hau da: BlackRock enpresan uste dugu megajoerak indar boteretsuak eta eraldatzaileak direla, eta ekonomia globala, enpresa-mundua eta gizartea aldatzen dutela. Era beran, uste dugu gure bizitzetan eta gure inbertsio-erabakien emaitzetan eragiteko gaitasuna dutela.

Egungo ingurunean, 5 megajoera identifikatu ditugu, eta horiek gure inbertitzeko modua aldatzen ari dira:

- Aldaketa botere ekonomiko globalean
- Klima-aldaketa eta baliabideen eskasia
- Aldaketa demografiakoak eta sozialak
- Aurrerapen teknologikoen duten disrupzio-gaitasuna
- Populazioak azkar hiritartzea (landatik hirirako migrazioa)

Zalantzarik gabe, historiako aldaketarik handienetako bat ari gara bizi izaten. Gure baitan dago aldaketa horiek nola ikusi: gure inbertsioentzat arrisku gisa edo aukera gisa. Megajoera horiek garatzen jarraituko dute; batzuk zaharkituta geratuko dira, baina seguru asko beste batzuk sortuko dira.

BlackRock enpresan espero dugu datozen hamarkadetan haien garrantzia are handiagoa izango dela; uste dugu inbertsiorako benetako aukera dela, eta inbertitzaileek onurak izan ditzaketela aukera horri esker. Argi eta garbi daukagu: inbertsio-prozesuan megajoera horiek kontuan izaten baditugu, inbertsio-aukerak aurkitu ahal izango ditugu eta horiei etekinak atera epe luzera, itzulkinak hobetzeko.

Zer esango zenieke segurtasuna nahi duten eta beren inbertsioetan inongo arrisku-motarik hartu nahi ez duten bezeroei?

Esango genieke oso garrantzitsua dela finantza-aholkularitza egokia edukitzea. Soilik horrela hartu ahal izango dute beren finantza-etorkizuna beren eskuetan, eta soilik horrela hartu ahal izango dituzte inbertsio-arloko erabakirik onenak, merkatu-ingurunearen arabera.

Era berean, esango genieke ez direla bateragarriak arriskuari beldurra izatea eta errentagarritasuna, testuinguru ekonomikoaren eta interes-tasen testuinguruaren ondorioz. Ziklo-amaierako testuinguru honetan, funtsezkoa da argi izatea gure ustez zer arriskuk izango duten ordainsaria eta zeinek ez; horregatik, berriro diot, oso garrantzitsua da kalitatezko aholkularitza profesionala izatea.

Azkenik, haiekin gogoeta egingo genuke, epe luzeko aurrezkiak/inbertsioa garrantzitsuak direla aipatuz, bereziki erretiroari begira. Egungo ekonomiaren eta merkatuaren ingurunean, eta kontuan izanik demografiaren egoera, garrantzitsua



da argi izatea nolabaiteko arrisku-maila hartu beharra dugula, epe luzera itzulkina eskuratu nahi badugu gure erretiroa osatzeko.

Eta iazko urtean beren inbertsioek izan zuten garapenaren ondorioz kezkatuta daudenei?

Gogoraraziko genieke 2018. urtea ezohikoa izan zela, eta 2019aren hasieran igoera handiak izan zirela merkatu nagusietan. Era berean, esango genieke 2019rako ditugun aurreikuspenak nahiko baikorrak direla. Esan dudan bezala, egia da ziklo ekonomikoaren amaierako fasean gaudela. Baina egia da, baita era, egokia den aholkularitzarekin zorro sendoagoak eraiki ditzakegula merkatu-ingurune desberdinetarako. Baina nolabaiteko itzulkin-kopuru bat eduki nahi badugu, nolabaiteko arrisku-maila hartzeko prest egon behar dugu.

Amaitzeko, industria guztiak, salbuespenik gabe, eskuordeturiko kudeaketaren aldeko apustua egiten du, bere bezeroentzako inbertsio-aukerarik onena delakoan. Zein da zure ikuspegia horri buruz, eta zure ustez zein da ematen duen balio erantsia?

Eskuordeturiko kudeaketaren bidez, inbertitzaileek beren ondarearen kudeaketa integrala eta profesionalizatua izaten dute, eta inbertsio-arloko erabakiak kudeaketa-talde baten esku uzten dituzte. Talde horren helburu bakarra da inbertitzailearen arrisku-profilera egokituriko errentagarritasunik handiena ematea. Kudeaketa-taldeak beharrezkoa den esperientzia, ezagupena eta tresnak ditu, inbertitzailearen aurrezkientzat inbertsio-erabakirik onenak hartu ahal izateko.

Garrantzitsua da zure kudeatzaile pertsonalarekin lan egitea inbertsio-estrategia bat diseinatzeko. Horri esker, zure errentagarritasun-helburuen arabera diseinaturiko zorroa izango duzu, eta zure arrisku-profilari egokitzen zaiona.

Gainera, zerga-sistema mesedegarria duen finantza-zerbitzua da eskuordeturiko kudeaketa, inbertsio-funtsen bidez bideratzen dituelako inbertsioak. Gainera, arrisku-profila eta zorroaren osaketa aldatu ahal izango dituzu, egoki irizten duzunean, funtsen artean diru-aldaketak eginez.